

HERNANI / Literatur solasaldiak urriaren erdialdean hasiko dira, eta urte amaiera bitartean sei izango dira

Solasaldiak euskeraz eta gaztelaniaz izango dira. Aurrenekoa 'Un ángel en mi mesa' liburuaren inguruan izango da, urriaren 14an.

Udal Liburutegiak antolatuta, urriaren erdialdean hasiko dira ikasturte berriko Literatur Solasaldiak. Solasaldiak euskeraz eta gaztelaniaz izango dira, guztiak Biteri kultur etxean, arratsaldeko 19:30etan. Urte amaiera bitartean sei izango dira.

Aurreneko liburua 'Un ángel en mi casa'

Aurreneko solasaldia Janet Frameren 'Un ángel en mi casa' liburuaren inguruan izango da, urriaren 14an. Bigarren hizketaldia sei egun beranduago izango da, urriaren 20an. Bertan Unai Iturriagaren Berandu da gelditzeko liburua izango dute hizketagai. Hurrengo bi solasaldiak azaroan izango dira. Aurrenekoa azaroaren 11an, Tobias Wolfen Vieja escuela liburuari buruz; eta bigarrena azaroaren 17an, Uxue Apaolazaren Umeek gezurra esan dute liburuari buruz; Azkeneko bi hizketaldiak berriz abenduan izango dira. Abenduko aurrenekoa 9an izango da, eta bertan Peter Handken Ensayo sobre el cansancio liburuari buruz hitz egingo dute. Azkenik, abenduaren 15ean, Joseba Sarrionandiaren Gau ilunekoak liburua izango dute aztergai.